



IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK
AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA
HE1

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrengeatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.

1 Etorbizuna izan nahi badu, lehenbizi ondo ikas hizkuntzak.

- a) dezan
- b) beza
- c) dezala
- d) ditzala

2 Badakite zer egin behar duten; beraz, daude.

- a) jakindurian
- b) jakinaren gainean
- c) jakina
- d) jakitunean

3 Non dago ortografia-akatsa?

- a) Arbasoa
- b) Zenidea
- c) Izeba
- d) Osaba

4 "Berandu ibili nintzen eta, ene, azkeneko trena galdu ez nuenean!" Zein da jarraipen egokia?

- a) A zer sustoa!
- b) A zer pena!
- c) Erne ibili nintzen!
- d) Hala bedi!

5 Aurrekoen pausoei jarraipena ematea gaurko mendizaleentzat ere izugarria da.

- a) erronka
- b) errekor
- c) errolda
- d) erronda

6 Mutikoaren arropak leihoan behar izan ditut, hautsez beteta zeuden eta.

- a) nahastu
- b) eragin
- c) erabili
- d) astindu

7 Hogeita bost kaleratze-gutunak prestatu zituzten.

- a) langileenganako
- b) langileengan
- c) langilearentzako
- d) langilerentzako

8 Ez dugu opari asko jaso baina, tira,, horrekin konformatu behar.

- a) bestelakoan
- b) besterik ezean
- c) bestela
- d) besteak beste

9 Aspalditxo eman zuten berria, baina guk jakin dugu.

- a) oraintsu
- b) oraindik
- c) oraingoan
- d) oraingoan

**10 Atzo arte etxe zahar horretan**

- a) bizi gara.
- b) bizitzen gara.
- c) bizi izango gara.
- d) bizi izan gara.

11 "Negar batean etorri zen etxera". Nola etorri zen?

- a) Erdi negarrez.
- b) Negar ta negar.
- c) Negarrez hasteko zorian.
- d) Negar pixka bat eginda.

12 Orain alferrik da; erabaki hori lehenago hartu

- a) behar zenuen.
- b) behar zenuke.
- c) behar zenuken.
- d) behar zenezakeen.

13 Barkatu! Ahalegindu nintzen etortzen, baina garaiz iritsi.

- a) ezin ninteke
- b) ezin nintzateke
- c) ezin nuen
- d) ezin izan nintzen

14 "Ordenagailu bedeinkatu honekin badut nahikoa lan". Zer adierazten du?

- a) Beti ordenagailuarekin dabilela.
- b) Lanpetuta bizi dela.
- c) Ordenagailuarekin haserre dagoela.
- d) Ordenagailuarekin poz-pozik dagoela.

15 Bost kilometro baino ez ditu egin korrika eta ezinean ikusten

- a) diogu.
- b) dugu.
- c) zaigu.
- d) zaio.

16 Laurogei urte eta politika munduan jarraitzen al du? Hori ere ez da, bada,

- a) atzo goizekoa!
- b) gaur eguneko!
- c) agure zarpaila!
- d) gazte askoa!

17 Oposizioa gainditzeko irrikan zaudelarik:

- a) Gaindituko banuen!
- b) Mesedez, gainditzea!
- c) Gaindituko ahal dut!
- d) Gainditu ahal nuen!

18 Irabazi beharra daukate, mailari eusteko; beraz, izango da.

- a) hilko ala biziko partida
- b) hil ala biziko partida
- c) hil ala bizien partida
- d) hilen ala bizien partida

19 Oparitu didaten bizikleta

- a) lehen baino hobea da.
- b) lehenago baino hobea da.
- c) lehengoa baino onago da.
- d) lehengoa baino hobea da.

20 Gu baino askoz zaharragoa izan arren, gazteagoa

- a) antza zeukan.
- b) zela nonbait.
- c) itxura zuen.
- d) ematen zuen.

**21 , zapiak hara!**

- a) Hego-haizea nora
- b) Ilargia nora
- c) Eguzkia nora
- d) Itsasontzia nora

22 Mirenekin elkartu zara eta zera proposatu diozu:

- a) Goaz mendira?
- b) Joango gara mendira?
- c) Joaten gara mendira?
- d) Goaz ba mendira?

23 Zuzendariak kopa altxatu eta honela esan die aurreko guztiei:

- a) Topo egin kopak elkarrekin!
- b) Topa dezagun elkar!
- c) Topa egin dezagun!
- d) Egin dezagun tope-topeka!

24 "Oraindik ere senide artean giro ezin hobea izaten dugu." Zer adierazi nahi du?

- a) Giro aparta daukate.
- b) Ez da giro haien artean.
- c) Giro kaskarra daukate.
- d) Ezin dira ongi moldatu.

25 Iritsi da liburugintzaren alorreko elkarteek bultzatzen ospakizunaz gozatzeko uea.

- a) dituen
- b) duten
- c) dituzten
- d) duen

26 Jende gehiegi dabil perretxiko biltzen eta egin beharko da ekintza hori.

- a) hausnartu
- b) mehatxatu
- c) baimendu
- d) arautu

27 "Arrazoi zenuen. Neska hori ukrainarra omen da!" Aukeratu erantzun egokiena.

- a) Banengoen, bada!
- b) Horretan nengoela!
- c) Esaten nuen holakorik!
- d) Uste nuen, bada, nik!

28 Ezin dizut ordaindu, nago eta.

- a) afaririk / diru gabe
- b) afaria / dirurik gabe
- c) afaririk / dirua gabe
- d) afaria / dirua gabe

29 Giro pasatu genituen herriko jaiak.

- a) ederrenik
- b) gozokienean
- c) ederrean
- d) atsedenean

30 Kostako zaio, baina horrek bilduko du dirua.

- a) hala moduz
- b) nolabait edo hala
- c) nondik edo handik
- d) han edo hemendik



31 Iratxe lankide guztiekin ondo moldatzen da; Amaia,, bakar batekin ere ez.

- a) behintzat
- b) beraz
- c) gutxienez
- d) aldiz

32 Zein da zuzena?

- a) Zuk goiz etortzea nahi dut.
- b) Zu goiz etortzea nahi dut.
- c) Zu goiz etorri nahi dut.
- d) Zuk goiz etortzerik nahi dut.

33 Denek jai eta ni lanean! Gaupasa eder bat egingo dut gaur!

- a) Nola ez!
- b) Zer erremedio!
- c) Zer demontre!
- d) Zer arrasto!

34 Jende faltagatik utzi behar izan dugu hitzaldia.

- a) bertara behera
- b) bertako behera
- c) bertan behera
- d) bertatik behera

35 Gazteen arteko gatazkak askotan izaten ditugu hedabideetan.

- a) galbide
- b) ogibide
- c) hizpide
- d) irizpide

36 Pailazoak bere keinu-imintzioez barre zien.

- a) eman
- b) eragin
- c) arazi
- d) eragotzi

37 "Estu eta larri" esamoldea non dago ongi erabilia?

- a) Egunero estu eta larri dabilena ez dabil batere gaizki.
- b) Estu eta larri ibili behar duzu lan hori garaiz
- c) Zurrumurruak estu eta larri zebiltzan herri txiki hartan.
- d) Estu eta larri gelditzen zitzaion alkandora erosi berria.

38 Bikotekideari labanaz diolakoan, gizonezko bat atxilotu dute.

- a) ireki
- b) zauritu
- c) eraso
- d) heldu

39 Zure lagun xeble horrekin barrez beharrean egon ginen denok.

- a) eragin
- b) ito
- c) jardun
- d) egin

40 Gizakia gero eta berekoiago eta bakartiago bihurtzen ari da; bezala!

- a) elkar behartu ez bagenu
- b) elkarren beharrik ez bagenu
- c) elkarri beharrik ez bagenio
- d) elkar beharrik ez bagenu



41 Gure eskolara jende askok deitzen du, informazio eske

- a) batere.
- b) batik bat.
- c) nolana ere.
- d) baita.

42 Aitziber kanpoan bizi da, baina edozein agertzen da etxean.

- a) ordun
- b) orduan
- c) orduetan
- d) ordutan

43 Auto-salmentek izan dute urrian Hego Euskal Herrian.

- a) % 46,7ko igoera
- b) % 46,7tik igoera
- c) % 46,7 igoera
- d) % 46,7ra igoera

44 "Hamaika ikusiak gara!" Beraz:

- a) Hamaika aldiz ikusi dugu elkar.
- b) Gauza bitxi asko ikusi izan dugu.
- c) Askok ezagutzen gaituzte.
- d) Sarri elkartzen gara.

45 Dakidan guztia kontatu ez naiz lasai geldituko.

- a) ez ezik
- b) beharrez
- c) baizik
- d) ezear

46 Jantzi berria estreinatu duenari zer esaten zaio?

- a) Osasunez ibili!
- b) Osasuna ekarri!
- c) Osasunean lagun!
- d) Osasunez urratu!

47 Bide-bazterreko arantza zorrotzek ziztatu eta urratu handiak egin

- a) gaitu / dizkigute.
- b) gaituzte / digute.
- c) digute / dizkigute.
- d) gaituzte / dizkigute.

48 Milaka lagun biltzen dira azokan urtero. Iaz,, 75.000 bildu ziren.

- a) hortaz
- b) esaterako
- c) bide batez
- d) jakina

49 Senar, joan nintzen hondartzara.

- a) umeek eta guzti
- b) ume eta guzti
- c) umeak eta guztiz
- d) ume eta guztiz

50 Noiz jaio nintzen? Bada,

- a) mila bederatziehun eta hirurogei eta hamabostean
- b) mila bederatziehun eta hirurogeitamabostean
- c) mila bederatziehun eta hirurogeita hamabostean
- d) mila eta bederatziehun eta hirurogei eta hamabostean



51 Nik ez dakit, baina hala behintzat atzoko egunkariak.

- a) zion
- b) zioten
- c) zioen
- d) ziotson

52 "Ez naizela alabari errieta egiteko gauza?" Bilatu jarraipen egokia erantzuteko.

- a) Ni ez naiz izango!
- b) Izango ez naiz, bada!
- c) Ez eta ez!
- d) Hori ez!

53 , bertara joan eta lau!

- a) Urrutiko behiak berrogeita lau
- b) Herriko lagunak hogeita lau
- c) Txakurrak jango ahal hau
- d) Auzoko intxaurrak hamalau

54 Osasun ona izateko ez dago ondo jatea

- a) beste onik.
- b) bezalakorik.
- c) hain onik.
- d) nahikorik.

55 Zein dago zuzen idatzita?

- a) Saiesbide
- b) Leoia
- c) Leialtasun
- d) Aizpa

56 Egingo nuela agindu nion eta

- a) beharko egin.
- b) egin, bada.
- c) egin beharra.
- d) egin besterik ez.

57 Paper guztiak lurrean sakabanatuak aurkitu zituenean, oihuka eta biraoka hasi zen,

- a) bere onetik aterata.
- b) onez onean irtenda.
- c) bere onenak emanda.
- d) onik irtenda.

58 Istripua izan eta aurpegia zeukan.

- a) odolean
- b) odolik
- c) odoletan
- d) odolbildua

59 Alde egin geratu baino zintzoago portatu dira.

- a) dutenak / direnak
- b) dutenek / direnak
- c) direnak / direnak
- d) direnek / direnek

60 Asteburu osoan euria ez genuen ikusi.

- a) besterik
- b) baina
- c) izan ezik
- d) ezta

61 Zuk egindako lana eskertzen dute; ikasleak dira.

- a) eskerrik askoko
- b) mila eskerreko
- c) esker oneko
- d) esker milako



62 Zer egin zenuten horrenbeste denboran? Bada, hantxe,

- a) edaten eta edaten.
- b) edanak edan.
- c) edan eta edan.
- d) edan eta edaten.

**63 "Egundoko parranda egin zuen lagunen kontura".
Nolakoa izan zen parranda?**

- a) Berebizikoa
- b) Aspaldikoa
- c) Egunekoa
- d) Nola-halakoa

64 "Hipotekak garestituko dira eta orduan kontuak". Larri ibiliko garela adierazteko:

- a) egingo dira
- b) izango dira
- c) aterako dira
- d) emango dira

65 Zure erlojua nirea baino

- a) lau minutu atzerago dabil.
- b) lau minutu atzeratuta dabil.
- c) lau minutu atzean dabil.
- d) lau minutu atzetik dabil.

66 "Enkargatuaren aldean lan handia egiten dute langileek". Bilatu baliokidea.

- a) Enkargatuaren eta langileen artean lan handia egiten dute.
- b) Enkargatuaren ondoan lan handia egiten dute langileek.
- c) Langileek enkargatuak baino lan gehiago egiten dute.
- d) Enkargatuak langileek beste lan egiten du, jakina.

67 Zuk guri eman argudioak oso ahulak dira.

- a) genizkizun
- b) zenituen
- c) zenigun
- d) zenizkigun

68 Ez zen inor libratu: krisiak jo gintuen denok.

- a) doi-doi
- b) urrun-urrun
- c) hortxe-hortxe
- d) bete-betean

69 abiatu behar zuten eta iritsi.

- a) Elorrioruntz / Durangoraino
- b) Elorriorantz / Durangoraino
- c) Elorriorantz / Durangora arte
- d) Elorrioruntz / Durangora arte

70 Zer moduz, Aitziber? Zein da erantzun DESEGOKIA?

- a) Gaitz erdi!
- b) Hortxe-hortxe!
- c) Hala moduz!
- d) Petral samar!



ATARIKO PROBA: ERANTZUNAK

HE1

1	D	11	B	21	C	31	D	41	B	51	C	61	C
2	B	12	A	22	B	32	B	42	D	52	B	62	C
3	B	13	D	23	C	33	C	43	A	53	D	63	A
4	A	14	C	24	A	34	C	44	B	54	B	64	B
5	A	15	B	25	B	35	C	45	D	55	C	65	A
6	D	16	A	26	D	36	B	46	D	56	A	66	C
7	D	17	C	27	A	37	B	47	D	57	A	67	D
8	B	18	B	28	B	38	C	48	B	58	C	68	D
9	A	19	D	29	C	39	B	49	B	59	A	69	B
10	D	20	D	30	C	40	B	50	C	60	A	70	A